

IRABAZI-ITURRIAK

Irabazi-iturriak enpresa edo proiektu batek lortzen duen diruaren jatorri nagusia dira, eta jarduera desberdinetatik etor daitezke, hala nola produktuak saltzea, zerbitzuak eskaintzea edo inbertsioak egitea. ZuBabestuz-en kasuan, gure jarduera nagusia gazteei doako laguntza eskaintzea den arren, irabazi-iturriak finantzatzeko proiektuak hainbat bide ditu: diru-laguntzak, dohaintzak eta tailerrak edo hitzaldi bereziak. Iturri horiek identifikatzea eta modu egokian kudeatzea funtsezkoa da enpresaren egonkortasun ekonomikoa bermatzeko, jarduera iraunkorra mantentzeko eta etorkizunean proiektu berriak eta esperientzia hobek eskaintzeko.

HASIERAKO DIRU-SARRERA	
ITURRIA	IRABAZIA
Maddi	350€
Laida	350€
Josu	350€
Mailegua	18.000€
GUZTIRA	19.050€



Enpresa sortu ahal izateko bakoitzak bere aurrezkietatik 350 € jarriko ditu hasierako inbertsioa ordaintzeko eta arazoren bat izanez gero, diru poltsa hori erabiltzeko. Horrez gain, 18.000€-ko mailegu bat eskatuko diogu bankuari.

Ondorengo taulan hilabetero izango ditugun diru-sarrerak azalduko dira. Lehenik eta behin, dirua zein iturritatik eskuratuko dugun jarri dugu. Ondoren, irabazia zenbatekoa den adierazi dugu. Eta azkenik, irabazi hori hilabeteko diru-sarreraren zein ehunekori dagokion azaldu dugu.

HILABETEKO DIRU-SARRERAK		
ITURRIA	IRABAZIA	HAZTAPENA
Ikastetxeak	2.600€	%20,31
Goierriko Hitza / Berria / El Diario Vasco	300€	% 2,34
Gipuzkoako Foru Aldundia	500€	%3,91
Bizkaiko Osasun Mentaleko Sarea	300€	%2,34
Eusko Jaurlaritza	6.000€	%46,88
Udalak	2.500€	%19,53
Euskadiko Gazteriaren Kontseilua	400€	%3,13
Tik Tok / Instagram	200€	%1,56
GUZTIRA	12.800€	%100

Hilabetero diru-sarrera desberdinak edukiko ditugu. Alde batetik, hainbat ikastetxerekin ibiliko gara lanean, baita osasun mentaleko erakunde desberdinekin ere. Bestetik, Eusko Jaurlaritzaren, Udalen eta Gipuzkoako Foru Aldundiaren diru-laguntzak jasoko ditugu, haiekin ere lan eginez. Horrez gain, hainbat egunkariarekin harremana edukiko dugu. Azkenik, sare sozialetan aktibo mantenduko gara gure proiektua gazteei zabaltzeko, irabaziak lortuz.

Hilabetero 12.800€ irabaziko ditugula aurreikusten dugunez, urteko diru-sarrera 153.600€-koa izango da.